

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

24 proiektuk 2018ko Artista Gazteen Topaketetan parte hartuko dute, arte eszeniko, musika eta moda-diseinu modalitateetan

Sariak urriaren 17an emango dira ezagutzera, publikoari irekitako prozesu baten ondoren

Osteguna, 2018.eko irailak 13

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak antolatutako [2018ko Artista Gazteen Topaketak](#) 10 proiektu izanen ditu Arte Eszenikoen modalitatean, 6 talde Musiken modalitatean eta 8 proiektu Moda Diseinuaren kategorian.

Irailaren 28tik aurrera, eztabaidak, tailerrak eta tutoretzak antolatuko dira epaimahaiak osatzen dituzten

pertsonen partaidetzaz. Jardun artistikoa, artea ekoizteko esparruak eta artearen prozesuak eta ikerketa bistaratu eta horiei buruz hausnarketa egitea xede duen prozesu honen ondoren, urriaren 17an, ezagutzera emango dira saritutako lanak, Zentral aretoan antolatuko den bukaerako topaketa baten bidez.

Arte eszenikoetako proiektuak

Arte Eszenikoen arloan, hauexek dira proiektuak aurkeztu dituzten 10 taldeak: Lilura Teatro, "Lamentablemente bien, un oculto cabaret" obrarekin; Nueva Babel, "La piedra oscura" antzeztanarekin; Arianna Corominas Vicente, "Contempole Roxanne" delakoarekin; Sara Gallardo Konpainia, "Aire, fuego y tierra" lanarekin; Tribu Show, "Tribu show" proposamenarekin; NUPeko antzerki-taldea, "Superhéroes de barrio" obrarekin; Zirkus Blai, "Consciencia" izenburukoarekin; Teatrolari, "Improvisto" lanarekin; Julia Ugarte Arbizu, "Tesseract" obrarekin; eta NYMPHS, "Meet" delakoarekin.

Hauexek izango dira epaimahaiko kideak: Carmen Larraz, dantzan aditua eta Danzad, Danzad Malditos jaialdiko zuzendaria; Oier Zuñiga, antzerkiaren arloko aditua; eta Ainhoa Juaniz, zirkuaren munduko erreferentea.

Musikak

Musiken modalitatean, honako hauek parte hartuko dute: Kimera, "Bihotzaren Melodía y con fuego" piezarekin; Hegaz, "Hegoak loratuz,



Aurreko edizioko Moda kategoriako lehiakideak.

arima zabaldu” delakoarekin; Adrián y los Albéniz, “Catarsis” lanarekin; Hey! Bastian, “Será siempre tarde/Ahora” proposamenarekin; Impacto, “Es tiempo de rock and roll” izenburuko kantuarrekin; eta Cobardes, nahiz eta oraindik ez duten ezagutzera eman abestu beharreko kantua. Hauexek izango dira epaimahaiko kideak: Alen Ayerdi, musika sustatzailea eta Marea taldeko kidea; Iñaki Larena, Nafarroako Unibertsitateko irakaslea eta diskoen edizio eta grabazioen kudeatzailea, eta Fernando Garayoa, musika kritikaria.

Moda diseinua

Zortzi bilduma hauek aurkeztuko dira: “The Project”, Julia Velázquez Charrorena; “Untiled”, Jon Mikeo Ezcurdiarena; “Oswalt”, Elena Ruiz de Erenchunena; “Reinona” Mario Molinet Maezturarena; “Fallen Leaves”, Adur Macho Itarterena; “Frente al espejo”, Ane Echegaray Elgorriagarena; “Colección nº1 Evoke”, Oihane Etxarri Zabaletarena, eta “Oreka”, Nerea Egozcue Altunarena. Epaimahaiko kideak hauexek izango dira: Ara Rodríguez, Dejavú Models-ekoa, eta Itxaso Mitxitorena, moda kazetaria.

Agenda: Arte Eszenikoak, Musikak eta Moda-Diseinua

Hautaturiko lan guztien egileek dagozkien epaimahaien aurrean aurkeztu beharko dituzte. Era berean, hainbat topaketa antolatuko dira arte garaikideko kontzeptuei buruz, eta publikoari irekitako jardunaldien bitartez, hautaturiko artistek interesak, kezak eta beharrak partekatzeko aukera izanen dute.

Ostiralean, urriak 5, kontzertuak Garazi Tabernan egingen dira (Iruñeko Calderería kalean), Cobardes eta Kimera taldeekin; urriaren 12an La Carboneran Hey! Bastian eta Adrian y los Albéniz taldeekin, eta urriaren 13an, Cavas Disco tabernan (Iruñeko Labrit kalean), Hegaz eta Impacto taldeekin, musiken kategoriako finalerdietarako hautaketa egiteko. Era berean, urriaren 5, 6 eta 7an, musika tailerrak antolatuko dira Uharteko Arte Garaikideko Zentroan (UAGZ).

Astelehenetik ostegunera, urriak 8-11, arte eszenikoen modalitateko ikuskizunak aurkeztuko dira. Civivox San Jorgen, urriaren 8an, Arianna Corominas, Nymphs eta Teatrolari; hilaren 9an, Nafarroako Antzerki Eskolan, Nueva Babel eta NUPeko antzerki-taldea; asteazkenean, hilak 10, Julia Ugarte, Tribu Show eta Lilura Teatro; eta ostegunetan, urriak 11, Civivox Iturraman, Sandra Gayardo Konpainia eta Zirkuz blai. Ostiralean, urriak 12, “Corriente alterna - Buscando la ‘chispa’ creativa” deritzon tailerrak egingen da Uharteko Arte Garaikideko Zentroan.

Bestetik, moda diseinuaren kategorian hautaturikoek hainbat tailer eta jardura izanen dituzte Baluartan urriaren 12an. Egun berean, musiken modalitateko finalerdietarako beste hautaketa bat egingo da La Carbonera tabernan (Iruñeko Erriberri kalean) antolatutako kontzertu baten bidez, eta gauza bera egingo da biharamunean Cavas Disco tabernan.

Azkenik, urriaren 17an, musika modalitateko finala egin eta sarituak emango dira ezagutzera Iruñeko Zentral aretoan antolatutako topaketa artistiko baten bidez, 2018ko Artista Gazteen Topeketei bukaera emanez.